



Basagutxibeaskoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Beaskoa
Ahozkoa: Bixketxe / Bixko

“... la casería y pertenecidos de Basagutxibeazcoa radicante en la Cofradía de Andiconia en la anteiglesia de Berriz... se compone de piso bajo y en él, cocina, dos cuartos y cuadra; de habitación con dos cuartos, pajares y camarotes ocupa con inclusión de la Arnaga o acceso-ria, una campo libre y la huerta cuatrocientos setenta y siete estados equivalentes a diez y ocho areas, quince centiareas...”
DJE 3/151 or. (1877)



43° 10' 57"

2° 35' 22"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

Baserri honen gaineko lehen aipu dokumentala 1716an aurkitzen dugu: *Basaguchi Veazcoa* (BAHP, A1794/32). 1745eko Bizkaiko su-erroldean *Basaguhea de Iuso* aurkitzen dugu, eta XIX. mendean zehar ere, izen bera aurkituko dugu, 1825eko polizia-errola kasu: *Basaguchi Veazcoa* (PE/1825). Auzokideen artean, *Bixketxe* edo *Bixko* erabiltzen dira, eta *Beaskoa* baserria izenez ere ezagutzen da Andikoa aldean. Berez, 1967an Udalak egindako eraikin-errolan *Bies-co* (BUA, CE) agertzen da.

Bizitza biko baserria da, fatxadan bertan ondo baino hobeto igartzen den moduan, guztiz era simetriko eta garbian baitago antolatuta. So-

lairu bi eta teilatupekoaz osatuta dago eta bao guztiak lau ardatzen arabera zabaldu ziren, beheko solairuko sarrerako atea ezik, leihoen artean daudelako. Behekoekin lerrotatuta, lehenengo solairuko leihoak daude, teilatupeko leiho luzeak eta izkinako leihotoxak, baita go-rengokoak ere. Batasuna emateko eta bertikal-tasuna hausteko, zurezko balkoia dauka aldenik alde, goiko pisuan. Harlangaitza erabili zuten eraikitzeko, kantaletan eta bao guztien ertzetan ezik, hauek harlanduaz egin zituztelako. XIX. mende amaierako edo XX. mende hasierako baserria da.

toponimia

Maiz esan dugun legez Bizkaian ohikoa da etxe berriak elkarren ondoan eraikitzea eta ondorioz jatorria etxe izena zela auzo izen bihurtu eta horko etxe izen guztietan ageri da. Kasu honetan beasko hitzak “behekoa” dela esan nahi du. Beaskoa hitzaren osagaiak beko eta indarra ematen zuen osagaia bide dira. Esan bezala, izen hau gaur egun sortuko bagenu Basotxikia esango genuke gutxi garai batean txiki esateko erabiltzen baitzen. Araban, esaterako, Miñano Menor herriaren euskal izena Miñaogutxi da. Hitz konposatuetan, euskaraz, ohikoa da -o>-a aldatzea (pagadi, basakatu...) eta horregatik ageri da basa.